



AMEZKETAKO UDALA

Amezketako Udalbatzak, bi mila eta hamazortziko uztailaren 26an egin zuen Ohiko Osoko Bilkuran, honako erabakia hartu zuen:

AHAPOren AURRERAKIN DOKUMENTUA JENDAURREAN JARTZEARI BURUZKO ONESPENA

2018ko otsailaren 1ean Amezketako Udalbatzarrak hartutako Ebazpenaren bitartez Amezketako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra idazteko prozesuari ekin zitzaion.

Hartutako Ebazpen haren baitan, Eusko Jaurlaritzan eta Gipuzkoako Foru Aldundian babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta naturguneen alorreko eskumenak dituzten organoei informazioa eskatu zitzaien arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko. Horrela, txosten hauek jaso dira:

- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Natura, Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzako txostena.
- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzako txostena.
- Itelazpi enpresa publikoaren idatzia.
- Baitere kontutan hartzekoa da Espainako Dirección General de Aviación Civileko txostena Donostiako aireportuko zortasunari buruzkoa.

Aurrerakin dokumentuak ezarri nahi den antolamenduaren irizpideak, helburuak, alternatibak eta proposamen orokorrak zehazten ditu eta hau onesteak barruko administrazio-eragina izango du, kasuan kasuko hirigintza-planaren idazketari begirakoa. Kasu honetan, aginduzkoa da Hiri Antolamendurako Plan Orokorra prestatzea eta onestea proposatzen delako. Hori guztia, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 87. artikuluan xedatu duenaren arabera.

Bestalde, Aurrerakin dokumentuan ere, ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioa egiten duen azterketa, hasteko agiria, ere jasotzen da.

Informazio Batzorde Orokorrak, aldeko onarpena eman dio proposamen honi.

Horren aurrean, aurretik bere edukiaren inguruan azalpenak emanda eta eztabaida izanda, Udalbatzak ondorengo erabaki du ahobatez:

ERABAKIA

Lehena: Amezketako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Aurrerakina onartzea.

Bigarrena: Amezketako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Aurrerakinean dagoen ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioa egiten duen azterketa hasteko agiria onestea, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzari helaraztea, Plan Orokorraren Ingurumen Ebaluaketa Estrategikorako prozesua haste aldera, otsailaren 27ko 3/1998 Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorra eta garatzen duen 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenari jarraiki.

Hirugarrena: Amezketako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Aurrerakina jendaurrean jartzea bi hilabetez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean hedadura handiena duen egunkari batean iragarkia jarrita eta epe horretan interesdunek, nahi izanez gero, iradokizunak eta alternatibak aurkez ditzakete. Aurrerakina udal mugakideetara bidaliko da baitere ezagutu dezaten, eta guzti hau ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 90.3. artikuluan xedatutakoari jarraiki.